

DIRU-ITURRIAK

Gure proiektua aurrera eramateko, hasiera batean, Eusko Jaurlaritzak eman digun dirulaguntza erabiliko dugu. Horren aparte, ikastetxeak, gure proiektua kontratatzean, gure zerbitzuagatik ordainduko digu. Gure kasuan, ordainketa bakarreko diru-sarrerak euingo ditugu, hau da, transakzio baten bidez egingo digute pagua.



Ordainsaria, eskatzen digutenaren arabera aldatuko da, esate baterako, modifikazioagatiko irabaziak. Gure proiektuak oinarri batzuk ditu, beharrezkoak eta oinarrizkoak iruditzen zaizkigunak, baina hortik aurrera enpresak zerbait gehitzeko edo aldatzeko eskatzen badigu ordainketa aldatu egingo da eta prezioa igo egingo da.

Gure estrategia hurrengoa izango da; prezio finkoaren eta prezio dinamikoaren arteko nahasketa bat egingo dugu, bakoitzaren onena hartuz. Gure proiektuaren barruan eskainiko dugun zerbitzuaren balioa ez da aldatuko, ezta egoera aldatzen bada ere. Zerbitzu hau kontratatzean, kosu finkoa aplikatuko zaie, berriz zerbait gehitzean edo aldatzean kostu dinamikoa isladatu egingo da. Honekin, enpresaren errentagarritasuna handiagoa izango da eta Ikastetxe bakoitzaren betebeharrak eta nahiak asetu ahal izango ditugu.